



ODIETAKO UDALAK 2024KO IRAILAREN 24AN EGINIKO OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA.

Erripan, Odietaiko Bailara, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 2024ko IRAILAREN HOGEITA LAUAN, 19:08 direlarik, azpian aipatzen direnak bildu dira bilkura arruntan, legez eginiko deialdia egin ondoren, Alberto Urdaniz Elizondo alkatea buru delarik eta Alfonso Araujo Guardamino Udalaren Idazkariak lagundurik.

BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK: ANNE OYARZUN DOMEÑO, IÑAKI GUERENDIAIN AZPIROZ, CAROLINA AZANZA MONTALVO, OIHANE ORRIO REY, ANE MIREN BUITRON ZAZPE, JUAN PEÑALVER HERMIDA ETA ALBERTO URDANIZ ELIZONDO.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK: INOR EZ.

Akta honen erredakzioari dagokionez, Udalaren idazkari Araujok jakinarazi du bilkura bide elektronikoz grabatu behar dela, eta, gero, grabazioa audio formatuan gordeko dela « Pleno 24-09-2024 » izenarekin USB fitxategi informatiko batean "GRAB PLENOS" izenarekin. Fitxategia udal bulegoetan gordeko da, eta Udalbatzako edozein zinegotzik edo legeak eskubide hori ematen dion edozeinek entzuten ahal izanen du bulego horietan.

Hortaz, bilkura honetako aktaren edukia euskarri horretan jaso egonik, era berean paperezko euskarrian idatzi da, zorrotz betez Toki Korporazioen Antolaketaren eta Funtzionamenduaren gaineko Erregelamenduaren azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 109. 1.atala artikuluan ezartzen den moduan, non adierazten den Udalaren osoko bilkuren aktetan honako hau jaso behar dela:

..... eta beste alderdi batzuk, hala nola, bilkuraren izaera, hori egin den eguna eta tokia, bertaratu diren udalbatza kideen eta idazkariaren izenak

..... bozketen emaitza, harturiko erabakien testua eta bilkura hasiera eta bukaera ordua, **"eztabaidetan hitza hartu duten udalbatzako taldeen edo kideen iritziak eta haietako gorabeherak"**, hori guztia Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18. eta 19. artikuluen edukiarekin bat.

Hori dela eta, adieraztea aktan azken alderdi hori jasotzen denean, hau da, **"eztabaidetan hitza hartu duten udalbatzako taldeen edo kideen iritziak eta haietako gorabeherak"**, laburpen bat da non lehentasuna ematen zaion zehatz-mehatz esaten



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

denaren funtsezkoari esateko moduaren edo hitzez hitzezkoaren gaineratik (grabazioan jaso), hori guztia akta irakurtzen duten eta bertan egon ez zirenek hobeki uler dezaten; eta, beraz, lirtekeena da hitz zehatzak bat ez etortzea grabazioan esandakoarekin, baina bai jarreraren asmoarekin, zentzuarekin eta funtsarekin.

EH Bildu udal taldeko Ane M. Buitron zinegotziak udalbatzako gainerako kideei esan die bilkura grabatu behar duela, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 79. artikulua 3. apartatua aurreikusitako eskubidea erabiliz.

Udalburuak saioa irekita, 19:10ean, gai-zerrendako honako gai hauek aztertzeari ekin zaio.

1.- Aurreko bilkuraren aktak irakurri eta onestea.

Urdaniz alkateak galdetu du eragozpenen bat dagoen 2024ko ekainaren 11n eta 2024ko uztailaren 17an eginiko osoko bilkura arrunteko akten (deialdiarekin batera banatua) edukari dagokionez.

EH Bildu udal taldeko Ane Miren Buitron zinegotziak esan du:

Ekainaren 11ko aktari dagokionez, aktak betiko akatsak izaten jarraitzen duenez, ez daudela ados eta, beraz, hura onartzearen kontra bozkatu behar dutela.

Horren arabera, akta hori onartzeari buruzko adostasunik ez dagoenez, dagokion bozketa egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Urdaniz, Oyarzun, Guerendiain, Azanza eta Orrio zinegotziak, guztira 5.

Aurkako botoak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira 2.

Abstentzioak: Bat ere ez.

Ikusirik bozketaren emaitza, 2024ko ekainaren 11ko akta onartu da.

Uztailaren 17ko aktari dagokionez, bere taldeak ez duela onartzeko eragozpenik esan du.

Horren arabera, 2024ko uztailaren 17ko akta baiezpenez onartu da, hau da, Udalbatzako kide guztien aho bateko botoarekin.

2.- Hasiara batez onestea honako espediente hau: "Odietako Udal Plan Orokorreko egiturazko determinazioen aldaketa, Odietako udalerriko lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarrien azpiegiturak (parke eolikoak, eguzki-baratzeak) paratzeko modua arautzeko"

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak bertaratuei gaia azaldu (interbentzioa bilkurako grabazioan jaso da) eta, laburbilduz, honako hau esan du: Odietako Udalak, 2023ko urrian eginiko osoko bilkuran, instalazio mota horietarako lizentziak etetea erabaki zuen,

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

gai hori nekez jasotzen baita Odietakoko Udal Plan Orokorrean. Hori dela eta, urte beteko epean UPOa aldatzeko proiektua onartu behar da gai hori arautzeko, horretarako konpromisoa hartu zuen bezala. Hainbat profesionalen kontsultatu ondoren, 2024ko udaberrian, arkitekto profesional on bat bilatu zen aldatzeko proiektua idazteaz arduratzeko enkargua egiteko, Itziar Iriarte izenekoa. Gai honen guztiaren inguruko arautzea profesional horren esku utzi da, eta aukera dago Odietakoko bizilagunek aldatzeko, ekarpenak eta abar egin ditzaten. Arkitekto horrek, 2024ko ekainean, lehen dokumentua (zirriborroa) eta Parte-hartze Plana aurkeztu zituen, udaletxean. Plana hainbat bidetatik iragarri zen (NAO, iragarki taulak, whatsapp...), abuztu bukaera arte iraun du, nahiz eta legezko epea 20 egun naturalekoa izan. Bileran bat egin zen, uztailaren 30ean, eta han bertaratu zirenei informazioa eman zitzaizkien hau guztia zertan datzan, aukerak, eta abarri buruz. Alegazioen epean, Odietakoko EH Bildu Udal Taldeak bat aurkeztu zuen: dokumentu tekniko bat, ongi egingina eta justifikatua. Hori dela eta, pentsatu zen onena zela bigarren bileran bat egitea ikusteko nola txertatu iradokizun horiek proiektuan. Bileran egingina eta alderdi guztiak adostasun batera iritsita, "proyecto tramitable" izeneko bat egin zen osoko bilkuraren hasiera batez onesteko prest. Hori eginda, Nafarroako Gobernuari igorriko zaio, hilabetez jendaurreko tramitea egingen da eta, alegazioak eta txostenak ikusirik, osoko bilkurara itzuliko da behin-behineko onesteko; azkenik, Nafarroako Gobernuak izanen da behin betiko onespena emanen diona.

Ondoren, EH Bildu Udal Taldeko Ane Miren Buitrón zinegotziak hitz egin du. Osoko Bilkuraren grabazioan jaso da, eta adierazi du bere Udal Taldeari ondo iruditzen zaiola jarraitutako prozedura, bailarako bizilagunekin adostutako lan bat aurkeztu zutela, beren kezak islatzen zituena, eta proiektua idatzi zuen teknikariarekin egindako bileran zalantzak argitu zirela. Amaitzeko, esan du bi talde horien helburu komuna dela.

Horren arabera, osoko bilkurara bertaratu diren zinegotzien artean kontrako iritzirik ez dagoenez, aho batez ONARTU DUTE gai-zerrendako puntu hori.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua ondo onartutako, adieraztea erabaki hau hartu dela **Udalbatzako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin**. Hona hemen erabakia hitzez hitz:

"Gaia: Hasiera batez onestea "Odietakoko Udal Plan Orokorreko egiturazko determinazioen aldatzea, Odietakoko udalerriko lurzoru urbanizazinean energia berriztagarrien azpiegiturak (parke eolikoak, eguzki-baratzeak) paratzeko modua arautzeko espediente."

.- Ikusirik arestian aipaturiko Odietakoko Udal Plan Orokorra aldatzeko espedientearen edukia, zeinaren xedea eta justifikazioa honakoak baitira:

Jarduketaren xedea:



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

Odietako Udal Plan Orokorren aldaketa honen xedea da Odietako Udal Plan Orokorren aldaketa honen xedea da energia berriztagarrien azpiegiturak (parke eolikoak eta eguzki-baratzeak) lurzoru urbanizaezineko kategorietan ezartzea mugatzea. Kategoria horietan, azpiegitura horiek instalatzeko baimena ematen ahal da, Udal Plan Orokorren horren edukiaren arabera.

Udalerrian eta gertuko inguruetan parke eolikoak eta fotovoltaikoak ezartzeko eskaria gero eta handiagoa denez, Udalbatzak erabaki du landa-eremuan eskari berri hori aztertzea eta Udal Plan Orokorreko lurzoru urbanizaezinaren araubidea aldatzeko izapideari ekitea.

Udal Plan Orokorren egitura-aldaketa honen bidez, herrien inguruko landa-paisaia mantendu nahi da, bai eta energia berriztagarrietako azpiegituren erabilera baimentzen ahal diren lurzoru urbanizaezinaren ingurumen- eta ekoizpen-ezaugarriak zaindu ere. Landa-lurzoruaren eta eguzki-baratzeen edo parke eolikoaren erabilera arteko lurralde-antolamenduko eredu orekatua proposatzen da, horien ezarpena arautuz.

.- Ikusirik "Im arquitectos -Iriarte Mariñelarena Arquitectos urbanistas S.L.P." izeneko arkitektura-estudioak 2024ko ekainean idatzirik "ODIETA BAILARAKO UDAL PLAN OROKORREN EGITURAZKO DETERMINAZIOEN ALDAKETA" izeneko agiri teknikoaren edukia. Dokumentu hori Odietako udalerriko lurzoru urbanizaezineko kategorietan energia berriztagarrien azpiegiturak (parke eolikoak, eguzki-baratzeak) ezartzeko erregulazioan datza, bereziki, honako atal hauetan:

Proposamen teknikoa:

Horretarako, im arquitectos -Iriarte Mariñelarena Arquitectos urbanistas S.L.P. - arkitektura-estudioari eskatu zaio "ODIETA BAILARAKO UDAL PLAN OROKORREN EGITURAZKO DETERMINAZIOEN ALDAKETA" izeneko dokumentu tekniko bat idatzeko, Odieta udalerriko lurzoru urbanizaezineko kategorietan energia berriztagarrien azpiegiturak (parke eolikoak, eguzki-baratzeak) ezartzea arautzean datzana (2024ko ekaineko dokumentua).

Dokumentu tekniko horrek Memoria, Araudia eta herritarrek parte hartzeko prozesua ditu.

Dokumentu horretan ARAUDI zehatz bat onartzea planteatzen da, lurzoru urbanizaezinaren ezaugarrien koadro bat, alegia, eta Udal Plan Orokorreko hirigintza-araudiaren gainerako determinazioak ez dira aldatuko.

Aldaketaren justifikazioaren atalean lehen azaldu den bezala, asmoa da Odietako lurzoru urbanizaezina babestea ezartzen ahal diren energia fotovoltaikoko azpiegituren (hala nola eguzki-baratzeak) edo energia eolikoaren aurrean.

Udal-planeko araudiaren arabera, azpiegitura horiek baimentzen ahal dira garapen eredu zaintzeko eta balio naturala duen gorde beharreko lurzoru urbanizaezinean.

Eguzki-baratzeak edo energia eolikoa erabiltzeko baimenen araubidea aldatzea proposatzen da:



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

- Energia berriztagarriko azpiegitura horien erabilera xehetasun handiagoz arautzen da, eta ez da onartzen zuhaitzak moztu behar diren edo ezkaiak eta sastrakak kendu behar diren eremuetan. Autokontsumorako azpiegiturak eta autokontsumorako ez direnak bereiztea planteatzen da. Lehenengoak onartzen dira estalkietan edo lotzen diren eraikinekiko distantzia-baldintzak betetzen direnetan, eta autokontsumorako ez direnak oso malda txikiko lursailera mugatzen dira, herriguneetarako, bideetarako, pistetarako eta errekaetarako distantziak mantenduz.

- Garapen eredia zaintzeko gorde beharreko lurzoru urbanizaezinean baimentzen ahal den erabilera gisa gelditzen da adierazitako erabilera hori baina autokontsumorako mugatuta.

Honako taula honetan egiaztatzen ahal da.

| NORMATIVA PARA CADA CATEGORÍA DE SUELO NO URBANIZABLE | SNU DE PROTECCIÓN | | | | | | | | SNU DE PRESERVACIÓN | | | | |
|---|---|--|---|---|--|--|------------------------------|------------------------------------|--|---------------------------------------|-----------------------------|---------------------------------------|---|
| | SUELO DE VALOR AMBIENTAL- espacios naturales protegidos | SUELO DE VALOR AMBIENTAL- Conectividad Territorial | SUELO DE VALOR AMBIENTAL- zona fluvial- sistema de cauces y riberas | SUELO PARA LA EXPLOTACION NATURAL -Montes de utilidad pública | SUELO DESTINADO A INFRAESTRUCTURAS -carreteras | SUELO DE PREVENCIÓN DE RIESGOS- zonas inundables | VALOR CULTURAL - vías verdes | VALOR CULTURAL- caminos históricos | S. DE SALVAGUARDA DEL MOD. DE DESARROLLO | SUELO PARA SU EXPLOTACION NATURAL (*) | SUELO DE VALOR PAISAJÍSTICO | VALOR CULTURAL- caminos tradicionales | VALOR CULTURAL- patrimonio arquitectónico |
| PERM Permitido,- Sin Autorización del Departamento de Ordenación del Territorio | | | | | | | | | | | | | |
| AUTO Autorizable.- Autorización del Departamento de Medio Ambiente, Ordenación del Territorio y Vivienda del Gobierno de Navarra + licencia del Ayuntamiento + Otras entidades (Confederación Hidrográfica del Norte..). | | | | | | | | | | | | | |
| X Prohibido | | | | | | | | | | | | | |
| Huertas de producción de energías renovables 18 | X | X | X | X | X | X | X | X | AUTO** | AUTO | X | X | X |

(*) Las actividades constructivas quedan prohibidas en las zonas ocupadas por mosaicos y robledales de fondo de valle. En ningún caso se podrá construir en pendientes iniciales superiores al 30%

(**) Solo serán autorizables las infraestructuras energéticas de autoconsumo.

Era berean, honako atal hau gehitzen da:

LURZORU URBANIZAEZINEKO ERAIKIN, JARDUERA ETA ERABILEREN BALDINTZAK

(18) Energia berriztagarriak ekoizteko baratzeak. Jarduera hori egiteko baimena lortzeko, ingurumen ukipenei buruzko azterlan bat aurkeztu beharko da, eta, gainera, dagokion jarduerak eskatzen dituen neurri zuzentzaileak aplikatu beharko dira. Erregulazio horrek eragiten die bai energia berriztagarria sortzeko azpiegiturei bai energia berriztagarria ebakutzeko azpiegiturei. Autokontsumoko eguzki-energiaren eta haize-energiaren erregulazioa egokituko da Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeari. Eskala txikiko energia berriztagarriko azpiegiturak baimendu ahal izango dira. Honako hauek sartzen dira: - autokontsumorako banakako instalazioak. Kasu horretan, instalazioak lotuta dauden eraikinaren lurzatian kokatu ahal izango dira, edo eraikinetik gehienez 100 metrora. - autokontsumorako formula partekatua, - partaidetza publikoa duten hurbileko kontsumo-



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

formatuak (energia-komunitateak). - sustapen publikoko instalazioak. Gainerako energia-azpiegiturak ezartzean, hiri-lurzoruetatik edo lurzoru urbanizagarrietatik kilometro 1eko distantzia betetzera eta 570 m-tik beherako kotan instalatzera mugatzen dira. Energia fotovoltaiakoko azpiegiturak, ahal dela, eraikinen edo pergolen estalkien gainean jarriko dira. Kasu horretan, baimendutako jarduerak izango dira. Debehatuta daude mosaikoetan eta hariztietan kokatutako azpiegiturak, bai eta % 30etik gorako maldak dituzten lurretan daudenak ere. Zuhaitzak moztu edo heskaiak eta sastrakak kendu behar diren eremuetan ere ez dira onartuko.

.- Ikusirik Odietako Udalaren hirigintza-zerbitzuek (ORVE Etxebizitzak Birgaitzeko Bulegoa), 2024ko abuztuaren 26ko txostenean, lurzoru urbanizaezinean Odietako Bailarako Planaren egitura-aldaketaren hasierako onespeneraren aldeko iritzia eman dutela, eta horretarako baldintza izanen dela hasierako dokumentua zenbait atalekin osatzea, jada egin dena.

*.- Ikusirik Udal Idazkaritzaren 2024ko irailaren 4ko txostenaren edukia. Txosten hori espedientearen hasierako onespeneraren aldekoa da, eta honako hau ondorioztatzen du: "Ikusirik arestian azaldutakoa, sustatzailearen/interesdunaren helburua (kasu honetan, Odietako Udala bera), eta im arquitectos -Iriarte Mariñelarena Arquitectos urbanistas S.L.P. - arkitektura-estudioak 2024ko ekainean idatzitako "ODIETAKO UDALERRIKO LURZORU URBANIZAEZINEKO KATEGORIETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN AZPIEGITURAK (PARKE EOLIKOAK, EGUZKI-BARATZEAK) NOLA EZARRI ARAUTZEN DUEN ODIETAKO UDAL PLAN OROKORREKO EGITURAZKO DETERMINAZIOAK ALDATZEKO" dokumentu teknikoaren edukia, ondorioztatzen da ODIETAKO Udal Plan Orokorren aldaketa (egiturazko determinazioak) hori **Udal Plan Orokor horren edukiarekin bat datorrela, baita araudi eta legedi aplikagarriekin bat ere**; hori dela eta, ikuspegi juridikotik, txosten hau aldaketa hori hasiera batez onartzearen **ALDEKOA dela**, betiere arestian adierazi diren determinazioak betetzen badira, eta hurrengo atalean aurreikusiriko edukiori eta tramiteei jarraikiz."*

.- Ikusirik honako araudi aplikagarri honen edukia:

.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.-2-c) eta 47.-2 II) artikulua, erabaki hau hartzeko eskumena Udaltzatza duela eta Udaltzatza legezko kide-kopuruaren gehiengo osoa behar dela zehazten dutenak.

.- POT-3 Lurralde Antolamenduko Plana, eremu zentrala, maiatzaren 10eko 45/2011 Foru Dekretuaren bidez onartua eta azaroaren 11ko 62/2014 Foru Aginduaren bidez eguneratua.

.- Odietako Udal Plan Orokorra, Sustapeneko kontseilariaren uztailaren 4ko 88/2013 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartua. Plan horren zehaztapenak eta araudi osoa 2013/09/05eko 171. NAO onargaratu dira.

.- Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 49. artikulua (1-a eta 2 atalak), 77. artikulua (2. atala), 71. artikulua, 79.-1 artikulua eta horrekin bat datozen gainerako artikulua.

.- 2159/1978 Errege Dekretua.

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

ERABAKI DA

LEHENA.- *Hasiera batez onestea "Odietako Udal Plan Orokorren Egiturazko Determinazioen Aldaketa, energia berriztagarrien azpiegiturak (parke eolikoak, eguzki-baratzeak) Odietako udalerriko lurzoru urbanizaezineko kategorietan ezartzea arautzeari buruzkoa", Odietako Udalak berak sustatua, lehen aipatutako udal-teknikarien txostenetan ezarritako kontsiderazioekin bat etoriz.*

BIGARRENA.- *Espedientea izapidetzea eta, horren arabera, jarduketa hauek egitea:*

.- Espedientea jendurrean jartzea hilabeteko epean, erabakiaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, interesdunek epe horren barruan alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

.- Erabaki honen iragarkiak Odietako Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Erkidegoan argitaratutako egunkarietan argitaratzea.

.- Espedientea Odietako Kontzejuei jakinaraztea, erabaki honen berri modu frogagarrian emanez, eta, era berean, hasiera batez onetsiriko UPO aldatzeko proiektuaren kopia aurkeztea.

.- Hasierako onespena jaso duen Udal Plan Orokorra aldatzeko proiektua Nafarroako Gobernu Lurralde Antolamendu eta Hirigintza arloko Departamentu eskudunari bidaltzea, Nafarroako Gobernu departamentuen eskumeneko gaiei buruzko txostenak bil ditzan, eta, bereziki, Ingurumen Departamentuari, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren txostena/baimena lor dezan. Udalean txosten hori jaso gabe bi hilabeteko epea igarotzen bada, egindakotzat joko da.

Ondorengo jarduketak:

.- Odietako Udalak osoko bilkuran, jendurreko informazioan eta, hala badagokio, entzunaldiaren izapidearen emaitzan oinarrituta, behin-behinean onartuko du Udal Plan Orokorra aldatzeko proiektua, dagozkion aldaketekin, hori guztia gehienez ere sei hilabeteko epean, eta, hala badagokio, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egin ondoren.

*Odietako Udalak osoko bilkuran Udal Plan Orokorra aldatzeko proiektua behin-behinean onartu ondoren, **espediente osoa bidaliko zaio** Nafarroako Gobernu Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren arloko departamentu eskudunari, behin betiko onar dezan. Onarpen hori bi hilabeteko epean egin beharko da.*

Era berean, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79.-1 artikulua edukiaren arabera, "ODIETAKO UDALERRIKO LURZORU URBANIZAEZINEKO KATEGORIEKIN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN AZPIEGITURAK (PARKE EOLIKOAK, EGUZKI-BARATZEAK) NOLA EZARRI ARAUTZEN DUEN ODIETAKO UDAL PLAN OROKORREKO EGITURAZKO DETERMINAZIOAK ALDATZEKO" espedientea behin betikoz onesteko erabakia eta bertan jasotako hirigintza arauak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. "



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

3.- Behin betiko onestea espediente hau: "Odietako Udal Plan Orokorreko determinazio xehatuak aldatzeko lehenasunez birgaitu beharreko area bat mugatzeko."

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei, eta bilkuraren grabazioan jaso da. Laburbilduz, honako hau adierazi du: Hasierako onespeneraren eta hari dagozkion iragarkiak argitaratu ondoren, ez da alegaziorik egin espedienteari eta Nafarroako Gobernuari bidaltzeari dagokionez.

Jarraian, EH Bildu Udal Taldeko Ane Miren Buitrón zinegotziak hitz egin du, eta Osoko Bilkuraren grabazioan jaso da. Adierazi du bere garaian gai-zerrendako puntu honen kontra bozkatu zutela eta bere horretan jarraitzen dutela, bai parte-hartze plana aurrera eramateko moduagatik bai onartu beharreko dokumentuaren edukia berarengatik.

Azkenik, osoko bilkuran dauden udalbatzako kideen artean gaiari buruz hitz egin da, eta gai-zerrendako puntu honi buruz adostasunik ez dagoenez, bozketa egin da. Hona hemen horren emaitza:

Aldeko botoak: Urdaniz, Oyarzun, Gerendiain, Azanza eta Orrio zinegotziak, guztira 4.

Aurkako botoak: Buitron eta Peñalver zinegotziak, guztira 2.

Abstentzioak: Bat ere ez.

Toki Araubideko Oinarriak onesteko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua ondo onartarako, adieraztea erabakia hartu dela **Udalbatzako Kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin**. Hona hemen erabakia hitzez hitz :

"Gaia: Behin betiko onestea "Odietako Udal Plan Orokorreko determinazio xehatuak aldatzeko lehenasunez birgaitu beharreko area bat mugatzeko" espedientea."

.- *Ikusirik* (Ainara Iparraguirre Comuni3n, EHAEOKo 4030 elkargokide-zenbakiarekin, eta Alaitz Iburguren Beloki andreak, EHAEOKo 3899 elkargokide-zenbakiarekin-) *arkitektura-estudioak idatzitako "Odietako Udal Plan Orokorreko determinazio xehatuak aldatzeko lehenasunez birgaitu beharreko area bat mugatzeko" izeneko dokumentu teknikoa, 2024ko maiatzekoa, eta bisatu gabea.*

.- *Ikusirik arestian aipaturiko Odietako Udal Plan Orokorra aldatzeko espedientea, zeinaren helburu eta justifikazioa honako hauek baitira:*

Proposamen teknikoa:

Udalak Lehenasunezko Birgaitze Eremu bat mugatzea proposatu du, ia osorik herri bakoitzeko Alde Zahar bakoitzaren mugaketarekin bat datorrena, antzinasun

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

handieneko eraikinetan birgaitze-jarduerak bultzatzeko eta indartzeko, eta eraikitako ondarea ahalik eta gutxien desagertzeko, jabeek laguntza handiagoak jasotzeko aukera izan dezaten.

Horretarako, arkitektura-estudio bati (Ainara Iparraguirre Comuni3n, EHAEOko 4030 elkargokide-zenbakiarekin, eta Alaitz Iburguren Beloki andreak, EHAEOko 3899 elkargokide-zenbakiarekin, "ODIETA BAILARAKO UDALAREN HIRIGINTZA PLANAREN ZEHAZTAPEN XEHATUEN ALDAKETA, LEHENTASUNEZKO BIRGAITZE EREMUAREN MUGAKETA" izeneko dokumentu teknikoak idatzi zuen 2024ko maiatzean, bisatu gabea.

Dokumentu tekniko horrek Memoria, Araudia, Herritarren Partaidetzarako Plana, Dokumentazio Grafikoa (planoak) eta Eranskina (Udal Katastroaren informazioa) ditu.

Dokumentu horretan ARAUDI zehatz bat onartzea planteatzen da, eta proposatzen da lehentasunezko birgaitze-eremu baten mugaketa etena edo herri bakoitzean aldaketa honen dokumentazio grafikoan jasota dagoena.

Egungo Hirigintza Araudiko gainerako zehaztapenak indarrean jarraitzen dute.

Planoak:

- Lehentasunezko Birgaitze-eremua + eraikin katalogatua.
- Lehentasunezko Birgaitze-eremua+ 50 urteko eraikina.

Proposatutako aplikazio-eremua Odietako herri bakoitzeko Alde Zaharra mugatzea da, S1 Bizitegi Sektorearen barruan, eta ia osorik bat dator proposatutako Lehentasunezko Birgaitze-eremuaren mugaketa berriarekin; izan ere, Ostitzen bi partzela eta Gelbentzun beste bat daude, Alde Zaharraren Mugaketatik kanpo, baina 1. sektorekoak dira.

Eremu honetan sartzen diren eraikin guztiei aplikatuko zaie orain onartuko den araudi berri hau, bai eta indarrean dagoen Odietako Hiri Lurzoruaren Araudian eta Ordenantzan xedatutakoa ere. Zehazki, 46 eraikin babestuei Katalogo Historiko Artistikoan eta haren fitxetan jasotakoa aplikatuko zaie.

Mugaketak betetzen ditu etxebizitzaren arloko jarduketak babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 54. artikuluan adierazitako zehaztapenak, aurreko puntuetan zehaztutako justifikazioaren arabera.

Odietako Udal Plan Orokorren gainerako araudiak indarrean jarraitzen du.

.- Ikusirik Odietako Udalaren hirigintza zerbitzuek (Etxebizitzak Birgaitzeko Bulegoa EEBB), 2024ko ekainaren 3ko txostenean, ondorioztatzen dute Lehentasunezko Birgaitze Eremua mugatzeak etxebizitza arloko jarduketak babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 54. artikuluan adierazten diren espezifikazioak betetzen dituela.

.-Ikusirik Udal idazkariak 2024ko ekainaren 5eko txostena, espedientea hasiera batez onestearen aldekoa.

.- Ikusirik aplikagarria den honako araudi honen edukia:

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.-2-c) eta 47.-2 II) artikulua, erabaki hau hartzeko eskumena Udalbatzak duela eta Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo osoa behar dela zehazten dutenak.
- Odieta Udal Plan Orokorra, Sustapeneko kontseilariaren uztailaren 4ko 88/2013 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartua. Plan horren zehaztapenak eta araudi osoa 2013/09/05eko 171. NAO on argitaratu dira.
- Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen TESTU BATEGINA onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 49. artikulua (1-b eta 3 atalak), 77.-3, 72, 79.-1 eta horrekin bat datozen gainerakoak.
- 2159/1978 Errege Dekretua.
- 61/2013 Foru Dekretua, irailaren 18koa, etxebizitzaren arloko jarduketara babesgariak arautzen dituenak.

- Ikusirik Odieta Udalak, 2024ko ekainaren 11n eginiko osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuela Odieta Udalak berak sustaturiko "Odieta Udal Plan Orokorreko determinazio zehatuak aldatzeko lehentasunez birgaitu beharreko area bat mugatzeko" espedientea, aipatu udal teknikarien txostenetan ezarritako zehaztapenekin bat.

- Ikusirik - Espedientea hilabeteko epean jendaurrean jarri ondoren eta dagozkion iragarkiak iragarki-taulan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean (ekainaren 27ko 132. zk.) eta Foru Komunitateko bi egunkaritan (2024ko ekainaren 28an) argitaratu ondoren, epe horretan ez dela alegaziorik aurkeztu, ezta jaso ere.

-Ikusirik Udal Idazkaritzak 2024ko abuztuaren 7an eginiko txosten juridikoa. Hona hemen horretatik ateratzen diren ondorioak:

"Ikusirik Arestian azaldutakoa, sustatzailearen/interesdunaren helburua (kasu honetan, Odieta Udala bera), eta" ODIETAKO HARANEKO UDAL HIRIGINTZA PLANAREN ZEHATZAPEN XEHATUEN ALDAKETA, LEHENTASUNEZKO BIRGAITZE EREMUAREN MUGAKETA "izeneko dokumentu teknikoaren edukia, arkitektura-azterlanak 2024ko maiatzean idatzia (Ainara Iparraguirre Comuni6n, EHAEOKo 4030 elkargokide-zenbakiarekin, eta Alaitz Iburguren Beloki jaunak, EHAEOKo 3899 elkargokide-zenbakiarekin) ondorioztatu duenez, ODIETAREN Udal Plan Orokorren aldaketa hori (zehaztapenak, ordena xehatua) BAT DATOR PLAN HORREN EDUKIAREKIN, bai eta araudi eta legeria aplikagarriekin ere. Hori dela eta, ikuspuntu juridikotik, txosten honek ALDEKO iritzia ematen du aldaketa hori BEHIN BETIKO onartzeko, betiere aurretik azaldutako zehaztapenak betetzen badira eta hurrengo atalean aurreikusitako edukiarekin eta izapideekin bat etorritik. "

- Ikusirik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.-2-II) artikuluan eta 22.-2-c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, espedientea behin betiko onartzeko erabakia hartzeko organo eskuduna Udalaren Osoko Bilkura dela, eta horretarako Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar dela.

ERABAKI DA

LEHENA.- Behin betiko onartzea Odieta Udalak sustaturiko "Odieta Udal Plan Orokorren Determinazio Xehatu Aldaketa, Lehentasunezko Birgaitze Ereku baten mugaketan datzana" espedientea, hori guztia aipatutako Udal Teknikarien txostenetan ezarritako zehaztapenekin bat etorritik.



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

BIGARRENA.- *Espedientea izapidetzen jarraitzea, aplikatzekoa den indarreko lege-araudiaren arabera, eta, horren arabera:*

.- Erabaki hau hartu eta hamar eguneko epean, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren arloko Departamentu eskudunari dokumentuaren ale bat bidaliko zaio, behar bezala eginbidetua, emandako txostenekin batera, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean xedatutakoaren arabera kontrolatzeko eta Plangintza Erregistroan sartzeko, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen TESTU BATEGINA onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.-3 eta 79.-3 artikuluen edukiaren arabera.

Espedientea izapidetzen jarraitzea, aplikatzekoa den indarreko lege-araudiaren arabera, eta, horren arabera:

.- "Odietakoko Udal Plan Orokorren Determinazio Xehatuen Aldaketa, Lehenetsuneko Birgaitze Eremu bat mugatzean datzana" izeneko espedientea behin betiko onartzeko erabaki hau eta bertan jasotako hirigintza arauak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, betiere Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen TESTU BATEGINA onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79.-1 artikuluen edukiaren arabera. "

4.- Baso-suteek eragindako larrialdien aurrean jarduteko udal plana.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei. Esku-hartze hori bilkuraren grabazioan jasota geratu da, eta, laburbilduz, honako hau adierazi du: Odietakoko udalerria legez Nafarroako Gobernutik horrelako plana onartzera behartuta ez bazegoen ere, onartzea gomendatu zen, baso-suteek ekartzen dituzten arriskuak prebenitzeko gida gisa balio duen dokumentua baita, batez ere herrietako hiriguneetan. Nafarroako Gobernuak oniritzia eman zion hasierako dokumentuari, eta hori da orain osoko bilkuran onartuko dena. Onartu ondoren, Nafarroako Gobernuari bidaliko zaio berriz, onar dezan, erregistra dezan, gordailuan utz dezan, eta abar. Proposatzen diren prebentzio-neurriak praktikan jarri behar dira, batez ere hiriguneei, biztanleria osatzeko ekintzei eta abarri dagokienez.

Jarraian, EH Bildu Udal Taldeko Ane Miren Buitrón zinegotziak hartu du hitza. Osoko bilkuraren grabazioan jaso da hitzaldia, eta adierazi du bere Udal Taldea ados dagoela gai-zerrendako puntu hori onartzearekin.

Horren arabera, Osoko Bilkuran dauden zinegotziek ez dutenez kontrako iritzirik, gai-zerrendako puntu hau **ERABAKI DA, aho batez.**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluen ondorioetarako, adierazi behar da erabaki hau **Udalbatzako legezko kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin hartu dela.** Hona hemen erabakia, hitzez hitz:



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

"Gaia: Baso-suteek eragindako larrialdien aurrean jarduteko udal plana onestea."

.- Ikusirik espedientearen justifikazioa, honako zentzu honetan:

Baso-suteak, gaur egun, baso-ondareari eta herri-mendiei ez ezik, landa-ingurunean giza jarduera mantentzeari eta garatzeari ere eragiten dien mehatxua dira. Azken urteotan suteek gora egin dute, eta gero eta bortitzagoak, arriskitsuagoak eta kontrolatzeko zailagoak dira. Egoera horrek agerian uzten du ikuspegi orokor berri bat behar dela Nafarroako eta, zehazki, ODIETako udalerriko baso-suteen aurkako borrokan eta prebentzio-jarduketan, fenomeno horretan esku hartzen duten faktoreak aintzat hartzen dituen tratamendu batetik abiatuta.

Estatuan eta Foru Aldundian dagoeneko egin dira ildo horretako jarduerak, hala nola INFOMA Plan Bereziak dokumentua onartzea. Dokumentu horien helburua da zuzenean edo zeharka erkidegoko biztanleriari eta baso-masei eragiten dieten alderdi garrantzitsu guztiak biltzea, baso-suteekin zerikusia duten gertaerei dagokienez ager daitezkeen kasuak modu arin eta koordinatuan prebenitzeko edo horiei aurre egiteko. Horretarako, gerta daitezkeen baso-suteen prebentzioari eta ondorioen mugaketari berariaz egokitutako esparru organiko eta funtzionala ezarri da.

Toki-mailan, "BASO-SUTEK ERAGINDAKO LARRIALDIEI AURRE EGITEKO UDAL-JARDUKETAKO PLAN BEREZIAK (PAMIF)" izenekoak daude. Dokumentu horrek udalerriri batean baso-sutearen arrisku handiko egoerei aurre egiteko ezarritako esparru organiko eta funtzionala jasotzen du, eta honako hauek ezartzen ditu: hartu beharreko neurriak, larrialdiari aurre egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak, eta egoera hori gertatuz gero esku hartuko duten agintari, erakunde eta zerbitzuen koordinazio-eskema.

Era berean, baso-suteei aurre egiteko jarduketa-plan bat garatzeko gidaren helburua egoera horien aurrean jarduketak ezartzea da, udalerriko lurralde-eremuan pertsonak, ondasunak eta ingurumena ahalik eta gehien babestuz. Erakunde publikoek eta pribatuak, enpresek eta herritarrek Babes Zibileko Sistemari duten parte-hartzea antolatzeke den tresna da. Jarduera koordinatu eta hierarkizatu bat ezartzean, plangintza, berez, goi-mailako planetan eta autobabes-planekin integratzeko tresna bihurtzen da, maila guztietako lankidetzaren eta funtzioen banaketa egokia bultzatuz.

Baso-suteek eragindako larrialdiei aurre egiteko udal-jarduketako plan bat garatzeko gidak INFOMA Plan Berezia osatzen du. Plan hori goi-mailako erakundeek (forukoak eta estatukoak) onartu dute jada.

Uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legeak, Babes Zibilari eta Larrialdiei Aurre Egiteari buruzkoak, honako hau xedatzen du 13. artikuluan: Plan bereziek ezarriko dute, kasua baldin bada, zer udalerriri dauden behartuta arrisku jakin batzuei erantzuteko udal-jarduketa planak taxutzera eta onestera.

ODIETAKO UDALA



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

Nafarroako Foru Komunitateko Baso-suteen ondoriozko Larrialdietarako Babes Zibileko Plan Bereziak, 2022ko azaroan egindako berrikuspenean, lurraldearen zonifikazio bat ezartzen du, tokiko arrisku-parametroetan eta babestu beharreko balio orokorretan oinarritua. Arrisku- eta kalteberatasun-parametroen integrazioaren bidez, arrisku handiko 85 eremu deklaratu ditu. Eremu horietan, baso-suteen aurrean jarduteko udal-planak (PAMIF) eta kalteberatasun handiko 85 eremu egin beharko dira nahitaez, eta plan horiek egitea gomendatzen da.

Horregatik, oso beharrezkoa da toki-erakundeek, ODIETAK kasu, beren "BASO-SUTEEN ONDORIOZKO LARRIALDIEN AURREAN UDALAK JARDUTEKO PLAN BEREZIA (PAMIF)" idaztea; izan ere, prebentzio-plangintzarako tresna da, herritarren arriskuak murrizteko, eremu handieneko dokumentuekin koordinatuta (INFOMA).

.- Ikusirik Odieta Udalak, martxoaren 20ko 12/2024 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, "BASO-SUTEEN ERAGINDAKO LARRIALDIEN AURREAN UDALAK JARDUTEKO PLAN BEREZIA (PAMIF)" izeneko agiri tekniko egitea erabaki zuela ODIETAKO udalerrirako, bai eta TESICNOR SLU enpresari dokumentu hori idazteko zerbitzuak enkargatzea ere (IFK: B/31763899; helbidea: Mocholi industrialdea, 13 E nabea, Elorz ibaia kalea, 31110 Noain, Nafarroa).

.- Tokiko Jarduketa Planak garatzen dituen INFONAREN 3. eranskinean honako hau jasotzen da: "Udal Jarduera Plan Bereziak toki-korporazioko organoek onartuko dituzte, Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuak aldeko txostena eman ondoren, eta Nafarroako Foru Komunitateko Babes Zibileko Batzordeak homologatuko ditu".

.- Ikusirik enpresa horrek egina duela 2024ko ekaineko "BASO-SUTEEN ERAGINDAKO LARRIALDIEN AURREAN UDALAK JARDUTEKO PLAN BEREZIA (PAMIF)" dokumentua Odieta udalerrian, eta udal honi entregatu zaiola.

.- Ikusirik PAMIF dokumentua Nafarroako Gobernuko Larrialdi, Prebentzio eta Babes Zibileko Zerbitzuaren bulegoetan entregatu ondoren, 2024ko abuztuaren 9ko dataz, ALDEKO TXOSTENA eman zaiola (0003-0102-2024-001395 espedientea).

.- Ikusirik, hortaz, bidezkoa dela dokumentu hori Odieta Udalak onestea.

ERABAKI DA:

LEHENA.- TESICNOR SLU enpresak 2024ko ekainean eginiko "BASO-SUTEEN ERAGINDAKO LARRIALDIEN AURREAN UDALAK JARDUTEKO PLAN BEREZIA (PAMIF)" dokumentua onestea Odieta udalerrirako.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea eta Nafarroako Gobernuko Larrialdi, Prebentzio eta Babes Zibileko Zerbitzura behar bezala izapidetutako PAMIF agiria bidaltzea, handik Nafarroako Foru Komunitateko Babes Zibileko Batzordera bidal dezaten homologa dezaten.



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

HIRUGARRENA.- PAMIF dokumentuaren ale bat Odietako Udalaren web gunean argitaratzea orok jakin dezan."

5.- 2025. urterako lan-egutegia onestea.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei, Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei, eta bilkuraren grabazioan jaso da. Bereziki esan du 2025. urterako tokiko festaren eguna urtarrilaren 17an izanen dela, abereen eta abeltzaintzaren zaindariaren eguna.

Jarraian, EH Bildu Udal Taldeko Ane Miren Buitrón zinegotziak hartu du hitza. Osoko Bilkuraren grabazioan jaso da hitzaldia, eta adierazi du bere Udal Taldea ez dagoela ados gai-zerrendako puntu hori onartzearekin; izan ere, akats garrantzitsuak daude akordioaren testua idazterakoan (nahastea egunetan eta datetan), eta egutegiko 2 egun falta dira. Gauzak serio hartzea eskatzen du.

Alegatutakoa ikusirik, eta kontuan harturik hobe dela 2025erako lan-egutegiaren testua astiro zuzentzea, Urdaniz alkateak erabaki du puntu hori gai-zerrendatik kentzea eta osoko bilkuraren hurrengo saiorako uztea. Horretarako, behar bezala eginiko egutegia ekarriko da.

6.- Hasiera batez onestea 2025. urterako plantilla organikoa.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei. Hitzaldia bilkuraren grabazioan jaso da, eta, laburbilduz, honako hau adierazi du: Plantillan ez dago aldatarik 2024arekin alderatuta.

Jarraian, EH Bildu Udal Taldeko Ane Miren Buitrón zinegotziak hartu du hitza. Osoko bilkuraren grabazioan jaso da hitzaldia, eta adierazi du bere Udal Taldea ados dagoela gai-zerrendako puntu hori onartzearekin.

Horren arabera, Osoko Bilkuran dauden zinegotziek ez dutenez kontrako iritzirik, gai-zerrendako puntu hau **ERABAKI DA, aho batez.**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulua onduz, adierazi behar da erabaki hau **Udalbatzako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin hartu dela.** Hona hemen erabakia, hitzez hitz:

"Gaia: Hasiera batez onestea 2025. urterako plantilla organikoa.

Ikusirik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikuluko 1. paragrafoko i) epigrafearen edukia. Bertan zehazten denez, Udalbatzaren



AYUNTAMIENTO

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

eskumena da "langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea, funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldizkakoen zenbatekoa eta behin-behineko langileen kopurua eta araubidea finkatzea".

Ikusirik 2025erako plantilla organikoaren espedienteari dagozkion agiriak, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako arauetan xedatutakoarekin bat etorritik.

ERABAKI DA

1.- Hasiara batez onestea 2025. urteari dagokion plantilla organikoa. Ondorioz, onartu egin dira lanpostuei esleitutako ordainsari osagarriak eta/edo konpentsazio ekonomikoak, lanpostu horietako inguruabar objektiboak kontuan hartuta.

2.- Funtzionario eta lan-kontratudun langile finko eta aldi baterako izen-zerrenda eguneratua onartzea, plantilla horretako lanpostuekin bat datozenak.

3.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta webgunean iragarri ondoren, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ditzaten. Jendaurreko informazio-aldia amaitu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, plantilla behin betiko onartutzat joko da.

4.- 2025eko Plantilla Organikoa behin betiko onartu ondoren, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta horren kopia bat bidaliko zaio Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioiko Departamentuari.

FUNTZIONARIOEN PLANTILLA ORGANIKOA: 2025.

| Lanpostua | Plaza kopurua | Maila | Araubide juridikoa | Osagarriak | Egoera administratiboa | Baldintzak |
|-----------|---------------|-------|--------------------------|----------------|------------------------|--|
| Idazkaria | 1 | A | Kontratu administratiboa | Lanpostua: 35% | Hutsik | Herriburua den Ultzamako Udalarekin batasunean |

LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILEEN PLANTILLA ORGANIKOA 2025.

| Puesto de trabajo | Número de plazas | Nivel | Régimen jurídico | Complementos | Situación Administrativa | Condiciones |
|------------------------|------------------|-------|---------------------|------------------------------|--------------------------|---|
| Administrazio-ofiziala | 1 | C | Lan-kontratu finkoa | Maila: 12% Lanpostua: 23% | Jardunean | Euskara jakitea: B2 Lanaldi partziala: 81,82%. |

LAN-KONTRATUKO LANGILEEN ZERRENDA 2025.

| Izen-abizenak | Lanpostua | Maila | Araubide | Aitorturiko | Egoera |
|---------------|-----------|-------|----------|-------------|--------|
|---------------|-----------|-------|----------|-------------|--------|

**AYUNTAMIENTO**

DEL VALLE DE

ODIETA

31799 - RIPA

(Navarra-Nafarroa)

| | | | juridikoa | zerbitzuak | administratiboa |
|---------------------|------------------------|---|---------------------|------------|-----------------|
| Irure Ibero, Itziar | Administrazio-oficiala | C | Lan-kontratu finkoa | 2011/03/16 | Jardunean |

7º.- Tasa, prezio publiko eta udal zergeri dagozkien karga-tasak, 2025eko ekitaldian indarra izanen dutenak.

Lehenik eta behin, Urdaniz alkateak gaia azaldu die bertaratuei. Esku-hartze hori bilkuraren grabazioan jaso da, eta, laburbilduz, adierazi du ez dagoela aldaketarik 2024ko zerga eta tasekin alderatuta, kontribuzio-tasan igoera txiki bat izan ezik. Hori guztia Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legeak ezartzen duen % 25ekin bateratzeko da, bai eta Gaskueko Santurbe ermitan ezkontzak eta gainerako ekitaldiak egiteko prezio publiko berri bat ezartzeko ere.

